

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZAMBRANAKO UDALA

2026ko ekitaldirako zerga egutegia onestea

Ikusita 2026rako zerga egutegia eta udal honek kudeatzen dituen aldizkako zergak ordaintzeko epea onetsi behar direla, eta kontuan hartuta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan xedatutakoa, honen bidez, honako hau ebatzen dut:

Lehenengoa. Onestea 2026ko ekitaldirako zerga egutegia eta jakinarazpen kolektibo eta aldizkako duen borondatezko ordainketa epea. Hona hemen:

ZERGA	BORONDATEZKO EPEA	EPE EXEKUTIBOA
Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga	2026ko martxoaren 15etik maiatzaren 15era (biak barne)	2026ko maiatzaren 16tik aurrera
Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga (OHZ) Ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren gaineko zerga	2026ko uztailaren 1etik abuztuaren 31ra (biak barne)	2026ko irailaren 1etik aurrera
Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga (JEZ)	2026ko urriaren 15etik abenduaren 15era (biak barne)	2026ko abenduaren 16tik aurrera

Bigarrena. Zerga erroldak, zeinek ordaindu beharreko kuotak eta horien zerga elementu erabakigarriak jasotzen baitituzte, udal bulegoetan jarriko dira jendaurrean, iragarkia ALHAOn argitaratu ondoren, jendaurreko epean egoki irizten diren alegazioak edo erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Hirugarrena. Dirua sartzeko moduak eta ordainketa egiteko lekuak.

A) Banketxeetan helbideratutako ordainketak: ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute inolako izapiderik egin behar, helbideratze kontu berbera badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Bankuetan helbideratuta ez dauden ordainketak: ordainketa gutun bidez egin behar da, honako hauetan:

- Kutxabanken bulegoetan.
- Rural Kutxaren bulegoetan.
- Interneten bidez, web orri honetan: www.euskadi.eus/mipago.

Zambrana, 2025eko urriaren 8a

Alkatea

MARIA TRINIDAD ZARZA MARTINEZ